

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 468/2019 Erabakia, uztailaren 23koa. Onestea Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko behin-behineko langileentzat gordetako lanpostuen zerrenda aldatzea

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, zeinak onesten baitu Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen testu bateratua, 74. artikuluan dio administrazio publikoek beren antolaketa lanpostu zerrenden edo antzeko antolamendu tresnen bidez egituratuko dutela.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak honako hau ezartzen du 14.1 artikuluan: "Lanpostu-zerrendek aurrekontuetan diruz hornitutako lanpostu guztiak hartu beharko dituzte, funtzionarioentzat, lan-itunpeko lanari finkoentzat eta behin-behingoentzat gordetakoak bereiziz."

Gainera, uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauak, foru kargu publikoaren jarduna arautzen duenak, laugarren xedapen gehigarrian ezartzen du Arabako Foru Aldundiaren langileen plantillan zehaztu behar dela zenbat lanpostu gorde diren behin-behineko langileentzat, lanpostuak nolakoak diren eta langileen ordainsariak zenbatekoak diren.

Antolamendu egituren, eskumenen eta lanpostuei esleitutako eginkizunen berezko eboluzioak beharrezko egiten du lanpostu zerrenda (karrerako funtzionarioena zein behin-behineko langileena) era egokian moldatzea eta aldatzea.

Uztailaren 11n Lurralde Oreka foru diputatuak jaso duen idazki batean adierazten da Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bidez Arabako Foru Aldundiko sailak zehaztu direla 2019-2023 legealdirako. Horren arabera bitan zatitu da Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Saila, eta ondorioz aurreko legealdian baino foru sail bat gehiago egongo da. Horregatik, eskatzen da behin-behineko lanpostu bat gehiago ezartzea lanpostuen zerrendan: diputatu idazkaria.

Indarrean dagoen lanpostuen zerrendan behin-behineko 10 lanpostu daude diputatu idazkariaren lanak egiteko. Beraz, aurrean aipatutako dekretuaren ondorioz halako beste lanpostu bat gehitu behar da, legealdi honetako sail guztietan diputatu idazkaria egon dadin. Lanpostu berria Lurralde Oreka Sailari atxikiko zaio.

Beste alde batetik, sail zatiketa horren ondorioz lanpostuen zerrendako behin-behineko langileen multzoko lanpostu hau Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Sailari atxikitzen zaio: 1300.007, diputatuaren idazkaria.

Nolanahi ere, lanpostu horiek behin-behineko langileentzat direnez, kontuan eduki behar da uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauak, foru kargu publikoaren jarduna arautzen duenak, laugarren xedapen gehigarrian ezartzen duena. Bada, xedapen horretako laugarren idatz zatian ezartzen da behin-behineko langileentzat erreserbatutako lanpostuen kopurua Foru Aldundiak adieraziko diela Batzar Nagusiei agintaldi bakoitzaren hasieran.

Aginduzko txostenak ikusita, horiek direla bide, Arabako Bigarren Diputatu Nagusi-orde eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak proposatuta, eta kontuan edukita Diputatu Nagusiaren uztailaren 6ko 6/1989 Legeak Euskal Funtzio Publikoarenak, 6.1.e) artikuluan ezartzen duena, Diputatu Nagusiaren uztailaren

5eko 324/2019 Foru Dekretuak, Arabako Foru Aldundiaren sailak zehazten dituenak, ezartzen duena, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuak, funtzio publikoaren eskumenak ezartzen dituenak, ezartzen duena, eta Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuak, funtzio publikoan eskumena duen sailaren egitura organiko eta funtzionala onesten duenak, ezartzen duena, honako hau erabakitzen dut:

ERABAKIA

Lehenengoa. Arabako Foru Aldundiko behin-behineko langileentzat gordetako lanpostuen zerrenda aldatzea, 1300.022 kodeko diputatu idazkariaren lanpostua sortu eta Lurralde Orekaren Sailari atxikitzeko.

Bigarrena. 1300.007 kodeko diputatu idazkariaren behin-behineko lanpostua atxikitzea Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Sailari.

Hirugarrena. Erabaki honek Diputatuen Kontseiluak onartu eta hurrengo egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak. Nolanahi ere, ALHAOn argitaratuko da eta Batzar Nagusiei jakinaraziko zaie, uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauak, foru kargu publikoaren jarduna arautzen duenak, laugarren xedapen gehigarriko 4. idatz zatian ezartzen duen bezala.

Laugarrena. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete pasatu baino lehen, edo, bestela, berraztertze errekurtsua ebazpena eman duen erakundearen aurrean, hilabete pasatu baino lehen, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritik (horrekin lotuta dago urriaren 1eko 39/2015 Legeak, herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan ezartzen duena).

Gasteiz, 2019ko uztailaren 24a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Funtzio Publikoko zuzendaria

ADOLFO LANDER VERA